

## **Ikasbidaian 2**

–Begira, hemen oso ondo ikusten da nola aldatu zen eguraldia bat-batean.

–Bai, bai, bai! Jo, bat-batean gertatu zen, e? Zerua erabat estali zen, haizea altxatu zen eta olatuak sortu ziren.

–Bai, haizea altxatu zen, baina oso haize indartsua, gainera! Denak uretara erori zineten! Bueno, den-denak ez: ikusi Xuban! Zutik geratu zen, belari gogor eutsita! A zer oreka!

–Zutik geratu zen, bai, baina zuek Xuban baino hobeto zineten uretan! Begira, beste argazki honetan ikusten da zer gertatu zen.

–Bai! Haizeak bela mugitu zuen, Xubanek kontrola galdu zuen, eta beste irlaraino iritsi zen! Ene! Zenbat metro egin zituen?

–Ba, ez dakit, baina nahiko urruti dago irla hori, e!

–Bai, bai! Eta gaixoa urertzera iritsi zen, eta hango harri baten kontra jo zuen!

–Kar-kar-kar! Bai, harriaren kontra jo zuen, eta muturrez aurrera erori zen!

–Eta, gainera, hondarrik ez! Urertza lokatzez beteta zegoen! Zenbat lokatz jan zuen gaixoak!

–Ai ama, zer ona, Xabi! Argazki horiek pasatu behar dizkidazu!